

GIZA-ESKUBIDEAK ETA LEGE ZARRA

ESKUBIDEEN LENENGO AGERPENA

Laterri aundi ta ospetsuen artean, giza-eskubideen agerpena lenengoz zeiñek egin dauan esta da.

XV eta XVI mendean, lurralde txiki baten, eskubideen benetako agerpen antzeko bat lortu zala esaten ba'dogu, gizajokeri bat esango ete genduke?

Gure Forua edo Lege zarra, egia esan, burutsuen jakituri erara eginda ez dago eta ori izan zan XVIII gizaldian onartzen zan bide bakarra.

Baiña giza-eskubideai dedu ta itzala izateko egizko oiñarria bai, ba ziran. Eta orregaitik, giza-eskubideen eskutitz argi-argia.

* * *

«HABEAS CORPUS» OITURETAN

Lege zarrak, beste agerpen askok ez euken alderdi on bat euken: Ez ziran paperetako egitarauak, artu bear zan eta artzen zan jokabidea baiño.

Eta Ingalaterra'ko 1679'ean «Habeas Corpus» eta 1776'ean egin ziran Virgiiia'n agerpena baiño lenagoko ta antxiñagokoak zirala jakitea, da gauza miragarria.

Gure Lege Zarrak 1452'an, bagillaren 2'an agertu ziran idatzita, baiña an agertzen diran berba oneik ez dira aiztutekoak: «Eran de libre aldebrio y no estaban escritas».

Idatzi barik egotetik kalte batzuk etorri leitekezelako, urte orretan lenengoz papeletan jarri ziran. Beraz, Foru Zarra baiño lenagotik ba egozan Bizkaia'n giza-eskubideen oiturak.

* * *

BARDINTASUNA TA ASKATASUNA

Giza-eskubideen agerpen guztiak lenengo agertzen dabezen gauzak bardintasuna ta askatasuna izaten dira.

Frantzia'ko autorpenak diño: «Gizonak jaiotzatik askeak eta bardiñak dira».

ONU'ren autorpenak: «Gizon guztiak askeak eta eskubidez eta duintasunez bardiñak jaioten dira».

Dakustanez, ba, bardintasuna ta askatasuna gizonaren nortasunaren eta eskubideen oiñarri lez artzen dira.

* * *

LEGE ZARRAREN OIÑARRIAK

Ikusi dagigun gai bi orreik zelan zaintzen diran gure Foruan.

Lenengo bardintasuna:

XVI mendearen asieran ezin zeitekean esan gizonak bardiñak dirala, gero Frantzian eta ONU'n esango dan lez : Otseñak egozan eta gizon aske ta buru jabeak be talde bitan banatzen ziran: leñargi zaldunak eta bemaillako txumeak.

Ezbardintasan ori kentzeko, Foruak diño : «Todos son hidalgos», guztiak leñargi zaldun eta odol garbikoak dira.

Urrengo askatasuna:

Gai onetan ez dogu uste izan bear, Foruak askatasuna oraingo legeak lez adiazoko dauanik. Esaterako, ezin izan izparringietako askatasuna, izparringirik ez egoan aldi aretan. Ezta alkarte askatasunik be, lagundirik ez egoan aldian.

Baiña Bizkai'ko Foruak, sal-erosketarako askatasuna argi agertzen dau, esaterako.

Amargarren legeak, lenengo idazpuruan diño: «Bizkaitarrak aske ta euren buruen jabe dira, saltzeko, erosteko ta saldu-erosian erabilteko».

Bizkai'ko Jaun-Erriaren Forua zaintzeko España'ko errege guztiak zin egiten eben. Erre Kato-likuak be egin eban zin ori, bearrezkoa zanez.

EGILUZE